

Confint 2010

Haur eta Gazteen Nazioarteko Konferentzia, **Confint 2010**, ingurumen-hezkuntzako ekintza interaktiboa izan da, hedapen handikoa, ikasleak, irakasleak eta tokiko komunitateak bildu dituena. Ekimenari esker, gizarte- eta ingurumen-esparruan gaur egun ditugun erronkei buruzko ikerketak eta eztabaidak egin dira eskola-komunitatean. Gizarte-eraikuntzako prozesu horren harira bildu dira, gaiak aztertu, proposamenak adostu eta euren ideiak aurkeztuko dituzten ordezkariak aukeratzeko. **Confint 2010** ekimena hainbat mailatan eraman da aurrera: hitzaldiak eman dira eskoletan, eskualde, estatu eta kontinente mailako biltzarrak antolatu dira, eta, azkenik, 2010eko ekainean, Nazioarteko Konferentzia egin da Brasilian.

Euskal Autonomia Erkidegoan, **IRAES 21 sareak** (Jasangarritasunerako Eskola Sarea 21ek) bere gain hartu du ekimenean parte hartzeko erronka, 12 ikastetxe eta lehen eta bigarren hezkuntzako 1.200 ikasle partaide direla. Ikastetxeetan eztabaida-saiolak egin ostean, ordezkariak bildu eta **Euskadiko Gazteen Arduren Gutuna** idatzi dute. Azkenean, guztien ordezkari izan diren bi ikasleek eta irakasleak Brasiliako Konferentzian parte hartzeko aukera izan dute, non Planetako Gazteen Arduren Gutuna landu duten.



Planetako Gazteen Arduren Gutuna

Guk, munduko gazte jendeak eta Nazioarteko Konferentziaren ordezkariak, Planeta zaintzeko ardura onartzera gonbidatzen zaituztegu.



Gutunaren sorreran 53 herrialdek egin dute bat, eta 400 hurrek baino gehiagok hartu dute parte. Askotariko kulturak, hizkuntzak eta gizarteak dituzten herrialdeek onartu dituzten ardurak eta ekintzak adierazten ditu. Gure Planetak aurrean dituen ingurumen-erronkak kontuan hartuta, ingurumen-aldaketetatik babestu nahi badugu, guk geuk eraman beharko ditugu aurrera ardurok eta ekintzok.

Ardurak eta ekintzak

1. **Uraren, energiaren eta baliabide biologiko eta mineralen erabilera eraginkorra eta arduratsua** gauzatze alde-ra, **jendea informatzea eta arazoak jabeaztea**. Horrela, geure kontsumo-ohiturak hobetu egingo ditugu.
2. **Uraren kutsadura murriztea**, behin betiko geldiaraztea helburu hartuta, gobernuen, enpresen, nekazarien eta bestelako eragileen laguntza eta ekintzarekin.
3. **Negutegi-efektuak dituzten gasen isurketa murrizteko xedearekin**, jendea informatzea eta eskura dituen energia berriztagarriak erabiltzera bultzatzea. Era berean, ahal denean, gobernuari gaiari lotutako ekintzak abiarazten laguntzea.
4. **Nekazaritza jasangarria eta arduratsua sustatzea**, gizarte eta ingurumen mailan ondorio gutxiago izango dituen eta agrotoxikorik edota transgenikorik erabiliko ez dituen. Ildo horretan, nekazaritza-hezkuntza sustatzea, baliabideak erabiltzeko modu eraginkorragoak abian jartzeko eta elikadura-segurtasuna ziurtatzeko. Gainera, modu horretan, nekazaritza-lurak prestatzean herrialde batzuetan izaten diren suteak saihestuko dira.
5. **Ingurumena zaintzea**, hezkuntza-proiektuak sendotu eta lantzea, gazteen partaidetzaren eta erabakiak hartzeko gaitasunaren alde egitea, gazteei ingurumen-hezkuntzaren gaineko informazioa eskaintzea, komunitateak eta eskolak ikasketa-komunitate bilakatzea, eta horren gaineko errespetua eskatzea.
6. **Ekologi taldeak sortzea** eskoletan eta komunitateetan, biodibertsitatea babestu, zaindu eta balora dezaten. Biosferaren jasangarritasuna sustatzen duten ekosistemak zaintzea, hondakinak murriztea eta natur baliabideak tentuz erabiltzea.
7. **Kontsumo egokia** eta 5 ekintzen politika (hausnartzea, atzera botatzea, murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea) **sustatzea** informazio-publizitatearen bidez, egunero bizimoduan txerta ditzagun, eta, modu horretan, gizarte eta bizimodu jasangarriak erdietsi ditzagun.
8. **Ingurumenean eragina duten energien erabilera murriztea**, eta, xede horrekin, gizartean garraibide ekologikoak erabiltzeko kontzientzia eta jarrera sustatzea. Era berean, jarrera berri horiek ekarriko dituzten aldaketak errespetatzea.
9. **Ingurumen-ikuspuntuak eta -balioak ezartzea**, jendearen ikuspuntua hobetzeko eta hiritargo aktiboa sustatzeko.
10. **Kultura ekologikoa lantzea**, hezkuntza- eta komunikazio-jardunbideen eta artearen bidez, iraunkortasunerako ideia berriak sustatzeko.

Brasilian, 2010eko ekainaren 10ean

zain dezagun planeta
cuidemos el planeta

